

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Belateko Tunela irailaren 15ean irekiko da berriz

*Anai Astiz kontseilariak adierazi duenez, kalteak konpontzearekin batera, prebentzio-izaerako jarduerak egin dira bi tuneletan, epe laburrean afektazio gehiago ekiditeko*

Viernes, 26 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak gaur iragarri du Belate eta Almandozko tunelak irailaren 15 ean irekiko direla berriz, goizeko 09:00etan. Gogoan izan, tunelak uztailearen 8an itxi zirela, sendagai-hautsen zakuak zeramatzan kamioi batek Iruñera aldera zihoala su hartu ondoren, eta azpiegituran kalte larriak eragin zituen.




Tunelaren ikuspegia.

Denboraldi horretan eta kalteak konpontzearekin batera, prebentzio-izaerako jarduerak egin dira bi tuneletan, era horretan, epe laburrean trafikoari gehiago eragin ez diezaion.

Gobernuak irekiera horren berri eman die jada inguruko udal, ostalari eta garraiolariei, jabetzen baita tunelak itxita izateak zer eragozpen sortzen zizkien. Horrexegatik, Astiz kontseilariak egoera honi aurre egiteko erakutsitako pazientziagatik eskerrak eman dizkie.

Azpiegitura konpontzeko lanak Mariezcurrena Eraikuntzak (egitura berriz eraiki du), eta SICE SA enpresak burutu dituzte. Azken horrek, alde batetik, suteak kaltetutako materiala desmuntatu eta kendu du eta, bestetik, kaltetutako segurtasun-sistema guztiak konpondu ditu.



Tunelaren irudia.

Nafarroako Gobernuak obra horretako jarraipen-batzordeak biltzen jarraituko du haiek igortzen dizkieten eskaera eta iradokizunei erantzuteko.